

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko abenduak 17 / III. urtea / 106. zenbakia

*Bi hormetara*

## Isiltasunean lekuko



**JOSETXO AZKONA**

**H**ainbeste 'keria' rekin batera 'tasun' ik ere badu herri honek. Geroz eta gutxiago, akaso. Lerrotxo hauek sostengatzen dituen paper-sorta hau, 'tasun' horietako bat da. Eta ez dugu edonolakoa.

Ez nintzen Anoetako festan izan, baina, astearteko kronika irakurtzean bozkarioz hartu nuen bertan esandakoa: milaka lagun bildua zela asmo bakar batez, 'Euskaldunon Egunkaria'ri aupada ematekoa. Lehengo begiradan irudi lezake gauza arrunta dela, ez dela horrenbesteraino, finean; makina bat pertsona ikustea euskerarenganako ekintza batean. Izan ere, gure artean jende uholdeak mobilizatzen baitira zio baten alde ala kontra, isilik edo oihukatuz, pozean edo amorraturik... Zer esanik ez, euskera tartean dela! Beraz, bada, aurtengo Anoetako festa hola kontsideraturik, beste edozein bezalakoxea jo genezake: hara joandakoek bapo disfrutatu dute egitarauaz, beraien laguntzaz egitasmo honekiko nabariaraziz. Hala ere aurtengo edizioak berezitasunik ekarri du, nik uste.

Astearteko kronikari oraindik jarraikiz, deigarriak suertatu zitzaizkidan testuari lotua zetozen argazkiak. Eta hemen datza, nire uste apalean, berezitasunen artean bereziena: argazkiotan agertzen zirenak, gehienak arlo politiko eta kulturalaren aurpegi ezagunak; irribarez, elkarrri bostekoak luzatu eta lasai-lasai solastatzen ari zela... Aizu, ez zuten ematen etsai amorraturik zirenik ere! Mirakulua ote?

Euskaltzaleok konturatu omen gara, azkenean, indarrak bateratsu jokatuta beharrean dagoela bldin eta egunkari honek bide luzea egingo badu. Zeregin honetan ez dira guziak ados, ordea. Elkarren arteko aldeak sakonegiak dira nonbait, eta elkarrekiko mesfidantza, nagusi, oraindik. Guziarekin ere, hasieran proiektuarekin bat ez zetozenak, badatoz bat orain, eta, goizago edo beranduago, diru iturria zabaldu beharko du Jaurlaritzak, eta ez produktua kontrolatu edo bere aldera makurtu asmoz, saiatuko dena, bestalde, baizik eta berez lagundu behar delako: legez eta bidez, besterik gabe. Bestearen aldera pasatuz, era zabal eta zuzen jardutea premia-premiazkoa da egileen aldetik: hola ari dira egiten, eta holaxe segitzea nahi dugu guziok.

Boutak antza ari da hartzen herri hau, bai berrudi aldrebeskerietan ibiltzea gogoko dugula bakarrik. «Nazka eginda nago egoera honetaz» esapidetik aldendu behar da lehenbailehen. 'Egunkaria'k, periodiko bat izateaz gain, eta ez da gutxi, alegia; elkargune bat ere behar du izan, guri dagokigunez behintzat, laberinto honetatik askatzen abian jartzeko. Txukun egin dezagun, arren!

Ez da ohizkoa duela 60 urteko Nafarroari buruzko testigantza jasotzea, are arraroagoa euskaraz. Pablo Fermin Irigarai 'Larrekok' idazle eta sendagile auriztarrak (1869-1949) gerra garai gorrietan bere eguneroko mina, arrenkura eta go-goetak paperean izenpetu zituen, isileko eskuizkributan. Urte guzti hauetan gorderik, luze gabe argitaratuko ditu Pamiela argitaletxeak, oso-osorik gorderik baitzeuden, argitaratzeko garai egokiaren esperoan, Irigaraitarren etxean.

Gerra kronika baino, euskaltzale fina zen Larrekoren bizipenak azaltzen dira bertan, isolaturik gelditu den euskaldun baten go-goetak, finean, hainbeste maite zuena pairatzen ari zenak etsita eta hunkituta. Kronika paregabea, isiltasunean lekuko izan zenaren izaera eta idazkera hobeki ezagutzeko parada ederra emango duen liburua.

**Pablo Fermin Irigarai 'Larrekok' nortasun agiria, Nafarroako Diputazioak emanda. Behean, Iruñeko bere etxean ateginean paraturiko harria.**



## Gure aukerak

### ERAKUSKETAK

'Lurra zaindu dezagun' izeneko erakusketa zabalik dago Iruñeko Gotorlekuan, bertako udalak, Ansak eta 'la Caixa' fundazioak antolatutako. Ohizko ordutegia izanen du, lanegunetan arratsaldean eta jaiegunetan goizez.

Lola del Castillo artistaren erakusketa zabalik dago Iruñeko Pintzel Galerian, Abejeras kalean. 'Entre dos luces' izeneko erakusketak urtarilaren 7a arte iraunen du. Astelehenetik ostiralera irekitzen dute, goizean 10.00etatik 13.30etara, eta arratsaldetan 16.30etatik 20.00etara.

### MINTZALDIAK

'Gazteak eta alkohola' gaiari buruzko mahaingurua izango da heldu den astelehenean, abenduak 20, Korellako Lanbide Heziketa Institutoan. Ikasleez gain, Tuterako Alcoholicos Anonimos elkarteak, Iruñeko Argibide Fundazioa eta Trafikoko Zuzendaritza Orokorra kideak izango dira bertan. Arratsaldeko 19.00etan izango da.

### ZINEMA

'Chapaiev' izeneko pelikula botako dute heldu den asteartean, abenduak 21, Olite zineman, Nafar Ateneoak antolatutako Zine Sobietarrari buruzko zikloaren barruan. Arratsaldeko 20.00etan hasiko da. Bazkideentzat sarrera dohainik izango da.

'Hoffa' pelikula ospetsua eskainiko dute datorren ostegunean, abenduak 23, Tafallako Español zineman. Kultur Patronatoak antolatuta, bi saio izanen ditu, arratsaldeko 20.00etan eta gaueko 10.30etan. Sarrerak 200 pezetatan saltzen dituzte.

### BESTELAKOAK

'Everest PRI'93 Espedizioa' izeneko ikusentzutezkoaren emanaldia izango da bihar, abenduak 18, Zizur Nagusiko udaltxeko ekitaldi aretoan. Bi saio eskainiko dituzte, gaztetxoentzat arratsaldeko 18.00etan eta helduentzat 20.00etan.

### MENDI IRTEERA


Peñako Dorrerairitsiko mendia ibilaldia antolatuta du igande honetarako, abenduak 19, Nafarroa Kirol Elkarteak. Informazio gehiago nahi izanez gero, Elkartera joan besterik ez dago, Jarauta kalean, arratsaldeko 19.00etatik 21.00ak bitarte.

## Peñako Dorrea

Tafalla aldera hurbilduko gara asteburu honetan, Peñako eta San Pedroko mendizerrak barne ibiltzeko, nahiko ezezaguna den inguru batean. Izan ere, Club Deportivo Navarrak antolatu du asteburu honetarako bertaraino ateraldia eta horretarako izena eman behar duzue Jarauta kaleko egoitzan, edo telefonoz deitu: 22 43 24.

Txangoa, beti bezala, goizeko zortzietan aterako da Iruñeko Osasunbideko egoitzatik, eta autobusak Peñako Dorreran utziko gaitu bederatzia aldera. Kasedatik gertu, San Lucio izeneko azkeneko ekingo diogu bideari, zuhaitz txikiak, gehienak arteak, inguraturik. Hiru kilometrotako ibilbidea izango da lehendabiziko zati hau, pistaz hasieran, eta hain ezezaguna dugun Erret Ardi bidetik ondotik. Ordu bat t'ardi inguru emango dugu zati honetan, igo ere, zertxobait igo behar delako. Bertatik oso ikusmira polita dastatu ahal izango dugu Peñaherri zaharra izugarri ederra azalduko baitzaigu. Puntu honetan utziko dugu Erret Ardi bidea.

Hortik aurrera Kasēdatik



Zarrakaztelura daraman errepideruntz abiatuko gara, Kasēdako gainara, hain zuzen ere. Horretarako ehiztariek erabili ohi duten bidea hartu beharko dugu, errepidea aurkitu arte. Hortik ere ikusmira ederra dago. Bide hau, aurrekoa ez bezala, estu eta aldaparik gabekoa da eta hiru kilometro badira ere, ordu bete eskas baino gehiago ez gara ibiliko.

Hortik aurrera San Pedroko gaina aurkituko dugu. Zati honetan erdia beherantz eta hu-

rrengea gorantz egingo dugu, bidexka batetik, eta mediterraneo aldeko —honaino heldu dira!— landaretzak sortzen duen usainaz gozatuz. Beste ordu bete, hiru kilometro t'ardi egiteko. San Pedro utzita, Galipenzuko bidea bilatu behar dugu, eta lehen zatia ipuruz josita azalduko zaigu. Ondoren, baina, pista handi batek eramango gaitu zuzen-zuzenean herriraino. Orokorrean, 13,5 kilometro eta bost ordu inguru.

### ASTEKO PERTSONAIAK



Thomas Christiansen  
Futbolari



Manuel Lopez Mazuelas  
PSNko kidea



Juan Cruz Alli  
Lehendakaria

Berdegunean aritu ez bazen ere, Thomas Christiansen Sadarreko izarririk distiratsuenaren izan zen joan den asteazkeneko Kopa partiduan. Osasunak Zaragozaren kontra joko eskasa egin zuen, bana berdintzea besterik ez zuen lortu, eta kanporaketa ez zuen gainditu. Porrot horren aurrean, zaletuek euskarri bakarra topatu zuten, Thomas Christiansen aurrelari gorritxo berria. Zabalza entrenatzailea txistukatzen zuten bitartean Danimarkan jaiotako aurrelari gaztea goraiatu zuten. Jokalariak asteartean Osasunarekin hitzarmena sinatu zuen, eta horren arabera, denboraldi amaierara arte elastiko gorritxoa jantziko du, Barçaren jokalaria izaten segituko badu ere. Christiansenek 20 urte ditu, eta joan den denboraldian Gijoneko Sportingean aritu zen.

PSNko parlamentariak argi eta garbi —zerbait esateagatik— hitz egin zuen asteazkenean bere taldeak euskarri buruz duen jarreraz. Ekonomia eta Hazienda Batzordean Hizkuntz Politikak hurrengo urterako izan duen diru murrizketa eztabaidatu zen, eta oposizioko taldeak enmendakinak aurkezten saiatu ziren, baina UPNk atzera bota zituen, PSNren laguntzaz. Lopez Mazuelasek azaldu zuenez, euskararen berreskurapenak dituen hiru oinarrietatik —instituzioak, hezkuntza eta komunikabideak— soilik hezkuntza jotzen dute funtsezkotzat. Mazuelasek azaldu zuenez, bere taldeak abstentzioa emango zuen puntu honetan, Parlamentuan egingo zen azken eztabaidaren zain. Hau da, bai, baina ez. Ez txuri ez beltz. Argi eta garbi, beraz.

Lehendakari ibiltaria deitu beharko gurea, gobernuan aritu, ez da kigu ariko den, baina bidaiak egin... ia astero egiten dituelako. Aste honetan Volksbourgen egon da, Landabengo etorkizunari buruz mintzatzeko, eta Nafarroak galduko lukeen diruari buruz mintzatu ziren Lopez de Arriortua eta Ferdinand Piechekin. Nafarroako Gobernuak proposamen zehatza aurkeztu zuen. Hau da, Nafarroara ekartzea egun Katalunian egiten diren Volkswagen, Audi eta Skoda ibilgaiulen inportazioa, Landaben SEATik bereizteak BEZaren sarrerekin sortuko lituzkeen galerekin orekatzeko. Halaber, Saxonia Behereko enpresak Nafarroarekin lehendabiziz kontsultatu gabe ez zuela erabakirik hartuko azaldu zion Alliri.

### AHAZTU GABE!

EUSKALDUNON EGUNKARIAren hirugarren urtebetzea dela eta, iaz bezala, aurten ere jaialdia izanen da Iruñerrian, Burlatan hain zuzen. Joan den urtean gertatu zen bezala, AEKK antolatutako afariarekin batera izango da jaiak, gaur gauean. Afaria gaueko 21.30etan hasiko da eta ondoren, hamabiak aldera, Julio Kageta musikariaren kontzertua izango da, esan bezala, Burlatako Anaitasuna polikiroldegian. Kontzertu hau bukatu eta gero, Akelarre taldearekin berbena hasiko da.

Iaz arrakasta handia izan zuen jaialdiak, eta aurten ere, gaupasa egitea erabaki du EGUNKARIAK. Jaialdirako sarrerak 600 pezetetan salduko dituzte, polikiroldegian bertan eta Iruñeko zenbait tabernetan: Katu, Ezkia eta Poppelon hain zuzen ere. Afarira eta jaialdira joan nahi duenak, 1.500 pezetako txartela ordaindu besterik ez du izango, aipatutako lekuetan. Hori bai, aurretik erosiz gero prezioa ez da merketuko, hau da, 600 eta 1.500 pezetetan salduko dira txartel guztiak.

### ADI!

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... 'Zuri eta Beltz' Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

JOSETXO AZKONA kazetari iruindara elkarrizketatuko dute EuskalERRIA Irratiko 'Zokobetailu' saioan, heldu den astean. Azkonak, Nafarkariako kolaboratzaileak, poesia saria irabazi zuen Iruñeko udalaren sarien barruan, eta zer kontatu frantzo izango du, hain segur.



### Larraun

## 'Ekin Euskarari' erakusketa

P.U. / IRUÑA

Mitxausenea Kultur Etxeak 'Ekin Euskarari' izeneko erakusketa eskainiko du gaurtik aurrera, eta aurkezpenean Jose Luis Rodriguez Otxoa eta Mari Carmen Garmendia Nafarroako Gobernuko eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikako zuzendari nagusiak izango dira. Erakusketa honen helburua euskara eguneroko bizitzaren arlo guztietan erabili ahal izateko bide berri eta eraginkorrak eskaintzea da, eta Eusko Jaurlaritzak antolatua dago.

Erakusketaren aurkezpenean hizkuntzari buruzko hiritarren eskubide eta agintarien eginbeharren berri idatzia ematen da, eta horretarako panelak erabili dira. Halaber, hizkuntza eta bereziki euskara gizarteratzearen garrantzia aipatzen da, eta panelez baliaturik, euskara gizarteratzean sortzen diren sei egoera ezberdin aurkezten dira. Egoera hauek jendearen jokabideaz hausnarketa egiten lagunduko dute.

Halaber, ikus-entzunezko bat izango da erakusketan, sei proiektore, 480 diapositiba eta hamar minutuko iraupenarekin, eta egongo den herri bakoitzean, euskararen normalizazioa bultzatu dutenei omenaldia egingo zaie.

**BETELU-ARAIZKO ASTE KULTURALA** Betelu-Araizten, bestalde, Euskararen Astea ari da ospatzen aste hone-



Hizkuntz Politikako Zuzendariak izanen dira Lekunberrin.

tan, eta gaur ostirala, mintzaldi interesgarria izango da Azkarenten, «Euskaldunok, ba ote dugu umorerik?» lemapean. Bertan Felipe Juaristi idazlea eta kazetaria, Antton Olariaga EGUNKARIAKO marrazkilaria —'Zakili-xut-en' sortzailea—, eta G. Segurola txiste kontalaria izango dira, gaueko zortzietatik aurrera. Ondoren afaria eta kafe-tertulia izango da. Larunbatean, Arribeko plazan, 16.30etan, Popi eta Zaratrako pailazoak ariko dira, eta 18.00etan txokolatada izanen

da. Atallun, afaria prestatu dute, 21.00etan, eta ondoren, txotxongiloak helduendako, 'Gus' taldearekin, eta trikitixa gaupasa, Azkonebieta eta Jokinekin.

Igandea, hilak 19, txistulariekin dianak izango dira Betelun, eta 11etatik aurrera Artisau erakusketa. Ordu batean herri kirolak izango dira, Larraun-Betelu taldeen artean, eta 'Nahi ta Nahi Ez' musika taldeak Atallun arratsaldean eskainiko duen kontzertuarekin amaituko da Euskararen Aste hau.

### Altsasu

## Kirol Sariak banatu dira

IRUÑA

Txirrindulariak izan ziren nagusi Sakanako Kirol Sarietan, eta kirolariei ematen zitzaien lau sarietatik hiru izan ziren gurgipen gainekoendako. Sarien banaketa igandean izango da, eta afarirako txartelak salgai daude dagoeneko. Hemezortzi urtetik behar koen mailan Ainara Alegre irrirtari irurtzundarrak irabazi zuen, eta gizonetakoan Iker Flores txirrindulari urdiaindarrak. Hemezortzi urtetik gorakoan mailan Alizia Amezarai eta Jose Luis Arrieta txirrindulariek jaso zuten ohorea, nahiz eta zerrendan kirolari nahiko ezagunak izan. Altsasuko Sociedad Deportiva irabazi zuen taldeei emantzia, eta Sakanako Igeriketa Eskolak jaso zuen euskara bultzatzeagatik eman zena. Epaimahaiak bi aipamen berezi egin zituen sari hauez gain. Daniel Ziordiak atletismoan egindako lanarengatik jaso zuen bat, eta Felipe Lezeak bestea, bertako kirolari emandako laguntzagatik.

Hain zuzen ere, gogoratu behar da Kirol Astearen barruan Lezea, hegazkintzari buruz mintzatuko dela gaur Eugi eta Zenborain kirolariekin batera. Bihar, txirrindularitza izango da mahai gainean Euskadi Kutzaren artoan.

### Bartzelona

## Euskide Kultur Elkarteak euskal kultura ezagutarazi zuen bi egunez

P.U. / IRUÑA

Euskide Kultur Elkarteak zenbait ekintza antolatu zituen Azaroaren 26 eta 27an Bartzelonako kale eta Unibertsitate garrantzitsuetan. Ekintza hauek helburu nagusia Katalunian euskal kultura ezagutaraztea eta hedatzea da, eta kaleetan barna zantzarren, txistulari eta txalaparta erakustaldiak izan ziren, Euskal festa handi batekin amaituta.

Bi egun hauetan Bartzelonako inguru gris eta homogeneoa euskal dantza eta ohiturek bete zuten beren ikusgarritasunarekin. Horren erakusgarri jendearen harridura aurpegia izan zen, hango

antolatzaileek azaldu dutenez. «Bartzelonan ez daude zantzarren ezkil hotsa, txalapartaren soinu tinkoa edo txistuaren soinu goxoak entzutea ohituak, eta dohainik bada are gutxiago». Hala ere, hasierako harridura jakinmina bihurtu zen berehala.

**PROIEKTU GARRANTZITSUAK ESKU ARTEAN** Bi eguneko ikuskizun honek

Maitzaren 8ko Euskararen Egunaren jarraipen modura antolatu zuen Euskide Kultur Elkarte berriak. Hango Nafar Etxearen inguruko talde gazte batek antolatuta, Bartzelonan euskararen inguruko ekitaldiak antolatzea dute helburu, eta euskarazko klaseak

eta hainbat ekitaldi bultzatu nahi dituzten aurrerantzean. Izan ere, maiatzako festak eragin nabarmena izan zuen euskarazko klaseetan. Ordutik hona hirukoitzu egin da ikasleen kopurua, eta Aitor Karasatorre etxarriarrak azaltzen duenez, aurrikuspen guztiak gaintuta gelditu dira.

Ostiralean, horrela, zantzar, txalaparta eta txistulari erakustaldia egin ziren Bartzelonako kale eta Unibertsitateetan. Diagonal, Zentral eta Bella Terra unibertsitateak aukeratu zituzten eta sagardo eta patxarana ez zen faltan izan. Larunbatean, Rambletan izan zen festa, eta larunbat gauez Euskal Festa erraldoia.



**BURLATA**n dagoen beisbol zelaia zabaltzeko proposamenari oniritzia eman zion Udalak joan den astean, PSOE eta UPNko zinegotzien botoekin. Horretarako udal parkearen 233 metro erantsiko zaio oraingo zelaia, eta beste 2.729 metro kirol instalakuntza berrietarako erabiliko dira. Erabaki positiboa denak, baina, polemika piztu du, HB, Batzarre eta IU taldeak abstenitu zirelako eta Garin Hirigintza zinegotzi sozialistak bere dimisioa aurkeztu zuelako, «alde ilun ugari zirela eta». Honen ustetan, HB eta Batzarreko zinegotziek azpimarratu zuten bezala, eztabaida sakonagoa egin behar zen horrelako proiekturako.

**AIEGI**n dagoen Iratxeko Lagunen Elkarte osatu zen joan den igandean, museoaren inguruan ekitaldiak egiteko eta bultzatzaileen esanetan, «Aita Eskolapiarrek utzi zuten hutsune izpirituala eta kulturala betetzeko». Hain zuzen ere, duela 30 urtetik hona Iratxeko Monasterioaren zaindaria den Carmelo Ziordia izan da elkarte hau bultzatu duen horietako bat, eta itxaropen oso handiak paratu dituzte elkarte berriari.



**BARAÑAIN**go Udalak txoko honen merezimenduzko saria irabazi du aurtan, egin diren irregularitasun eta okerrak direla medio. Horren erakusgarri dira Udalak indemnaziotan xahutu beharko dituen 45 milioiak, bereziki Lagunak enpresaren kontratazioak direla eta. Langileen kontratazio anitzetan irregularitasunak izan dira urte osoan zehar eta tartean Udaltzaingoen burua, kultur koordinatzailea, euskara teknikaria, psikologoa, gazte animatzailea, eta haurtzaindegiaren langileak.

**ALTSASU**ko PSOEko udal taldeak gogor kritikatu du alkatea eta bere taldea, «egindako gestio ekonomiko okerra» dela eta. Hau da legegintzaldi honetan oposizioko taldeak egiten duen lehen kritika publikoa. Sozialistek azaldu zuten, ez da oraindik egitasmo ekonomikorik egin, nahiz eta hori hauteskundeetan azpimarratu zen lehentasunezko helburua izan, eta «elkarrekin lan egiteko helburu ekonomikorik ez zegoela» azpimarratu zuten sozialistek.

## «Gerla urte, gezur urte»



ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Pamiela prestatzen ari den liburua ezohizkoa izango da, eta hala azpimarratzen dute eskuizkribuen berri dutenek. Ezohizkoa eta bitxia, hainbat arrazoiengatik. Alde batetik Pablo Fermin Irigarainen beraren garrantziarengatik, bai euskal letretan bai Nafarroako abertzalegoan, eta baita bertan garai latz haietan Nafarroatik egindako testigantza paregabea dakarrelako ere, euskaldungoa banatu eta isilarazi zuten gertaeren berri zuzena eta hagitz pertsonala. Ez da hartu behar, baina, gerra kronikatza, Joxe Angel Irigarai Larrekoren biloba eta eskuizkribuak argitaratu daitezkeen ahalegin handienak egin dituenek azaldu duenez.

Duela berrogeita hamar urte pasatxo ilunpean eta isil-isilik gordeta izatearen zergatia, erraz azaltzen da. Larrekok berak ezkutuan eta isiltasunean idatzi zituen kaiarren berri bazegoen familian, baina beti izan ziren argitara emateko paradaren zain. Joxe Angel Irigarai azaldu duenez, zerbait gertatuta ere, beste egunkari laburragoa egin zuen Larrekok, jatorrizkoan bortitze-giak iruditzen zitzaizkion pasarteak kenduta. «Ni oroitzin naizenez, betidanik aditu diot aita zenera etxean bazela gerla denboran aitatxi gerlari buruz idatzitako eskuizkribu bat. Bertan aitatxi bere gogoeta, kezka, arrangurak azaltzen zituen eta aski ongi gordeta zegoen etxean, arretaz, aita beti beldur baitzen haren argitaratzen ausartzeko». Duela urtebete, jakitera emateko parada zegoela irizita, jatorrizko eskuizkribuak edo laburtuak plazartzeko duda-mudatan aritu ziren, baina azkenean oso-osorik ateratzea erabaki zuten.

Larrekoren testigantzaren garrantzia ulertzeko esan behar da

berre garaiko sendagile famatuenetakoia zela, eta aski ezaguna abertzalegoan eta euskal letretan ere. Auritzen jaiota 1869ko urtarrilaren 25ean, bertako erriantzen semea, ikasketak egiteko parada izan zuen, nahiz eta beste bederatzia anai-arreba izan, eta lehendabiziz Iruñeko Huarte Ikastetxean aritu zen, anai Juane-kin eta Pio Baroja beratararekin batera. Medikuntza ikasketak egin

zituena ondoren Zaragozan eta Madrilan, eta 1891n lizentziatura lortu zuen.

Sendagile gisa lehendabizikolanak Auritzen bertan egin zituen, eta geroago Orreagan.

1898an ezkondu eta Beran egokitu zitzaion lana. Inguruan bizi izan zen hurrengo 17 urteetan, eta Zaragozan beste euskal ikasleekin pizten hasi zitzaion euskaldun izatearen kontzientzia orduan

gorputzu zitzaion. Han eskuratuko zuen urte batzuk geroago bere lanak argitaratuko zituen 'Euskalduna' astekariaren lehendabiziko alea eta ia galdurik zeukan euskara berreskuratzeari lotu zitzaion gartsuki. Garai horretan hasi zen bere lehendabiziko artikulua idazten, eta estreinakoak Iruñeko 'Napartarra' eta Baionako 'Euskalduna' astekarietan idatzi zituen 1915ean. Urte berean Iruñeko Ospitalean plaza eskuratu zuen. Medikuntza ere oso laudotua, Iruñeko Ospitalearen zuzendari izendatu zuten, eta bertan egin zuen lan 1943ra arte. 1949ko irailaren 3an hil zen Iruñean.

Fede handiko gizona, erlijioa eta euskara izan zituen zutabe nagusienak bere bizitzan, eta horrela nabarmentzen da franko garbi eskuizkribuetan. Eta bien kariaz sufritu zuen, sufritu ere, gerra garaian. «Demokrazia kristaua zen bere esparrua» dio Joxe Angel Irigarai, «baina elizak zer-nolako jarrera hartu zuen ikusita —gerraren alde, gerra sustatuz—, asko mindu zen». Hain zuzen ere, euskalduntasuna eta erlijioaren arteko auzia izan zen gehien hunkitu zuena, batez ere abertzalegoak errepublikako gobernuaren alde egin zuenean. Euskaldungoerandik erabat isolaturik gelditu zen, eta noizbehinka Baionatik bidaltzen zioten 'Euskalduna' astekaria zen euskararekin zuen lotura bakarra. Gogoratu behar da gerra piztu aurretik 'Gure Herria', 'Argia', 'Euzko-Deya' eta beste astekarietan kolaboratzailea izan zela eta euskararen aldeko elkartetan ari-tua zela, aritu ere. Iruñeko Euskeraren Adiskideak Elkartearen sortzaileetako bat izan zen eta 1933an lehendakaria izendatu zuten.

Idazteari lotzea izan zen, beraz, isolamendu horretatik ate-



Iruñeko Paulino Caballero egoitzan arte gainean paraturiko harria.



Ramon Manuel Irigarai.

ratzeko Larrekok bilatu zuen bidea. «Eman dezagun egunen batean posible izanen dela, lehen bezala, euskarazko aldizkaria, eta nik egiten nuen lana egitea. Segituko dut». «Hasieran artikulua eginen bailituen segitu zuten» dio Joxe Angelek, «baina gero hartu zuen idaztea salbade bezala, etsipenaren kontra».

Etsipenari ihes egitea nahiko lan, baina. Ospitaleko zuzendaria izateak eta sendagintza famatua izateak ez zituen ezabatu bere euskaltasunak sortzen zituen mesfidantzak, nahiz eta arazo guztietatik duin eta itxuroso atera zen. Arrandirik gabe, bere pentsamoldea defenditu zuen une latzenetan ere, eta gerraren lehendabiziko egunetan, Iruñeko giro ezin nahasiagoan, bere ideia eta zaletasunari buruz galdetu ziotenean, ez zuen inolako errepa-

**E**uskaldungoerandik erabat isolaturik gelditu zen, eta noizbehinka Baionatik helden zitzaion 'Euskalduna' astekaria zen lotura bakarra.

zenezan jarraitzen zuen, eta «España berriaren asmoak eta jokamoldeak» Alemania eta Italiaren parekatuz jo eta gaitzetsi zituen, zuzenki zeharkara. Gerra bere gordintasun osoz azaldu gabea zelarik, 1940eko erdi aldera, idazteari utzi zion. Churchill eta ingeles duintasun eta fermutasunaren aurrean, «berri ere, Jainkoa maite!» dira bere azken hitzak.

Irigarai bilobak dioenez, «abantxu 60 urte iragan direlarik, liburu honen argitaratzea ezohizko zerbait izatez landaratu, Larrekorenganako zorraren ateratzea ere bada; honen argitaratzearekin hartzen baituke aspaldianik merezi duen ikustate eta onespena».

deitu zuten Larreko, semea itzultzeko agindu zezan, eta askoren aterbe bilakatu zen Lapurdiko herriskara abiatu zen sendagilea, baimen berezi baten bidez. Semea konbentzitu ondoren, biak itzuli ziren Iruñera, beldurra gorputzean errotuta.

Bere lanean, baina, ez dira zehaztasun guzti hauek aipatzen, zuhurtasunez izenak ez aipatzea hobe zelakoan. Hala ere, arrenkuraz jarraitzen ditu gertaera guztiak eta bereziki mingarriak zaitzkie Bizkaitik eta datozkionak. Enbeitarren lagunmina, Gernikatik eta beste herrietatik helden zitzaion «berri its eta tzarrek eroarazten» dutela dio. Isolamenduaren ondok ere nabarmentzen zaio iturri faxistetik landa deus gutxi jaso ahal izan zuela —zenbait irrati kenduta—. Propaganda faxistaren eragina, beraz, nabarmen azaltzen da, batez ere 'gorriak' eta 'txurien' artean egiten dituen antzeko sailkapenetan.

Gerraren bukaeran II. Mundu Gerra piztu zen, eta honen aurrean idazten segitu zuen. Mundu zabalean gertatzen zena zuzen-zuzenean

zuzenean jarraitzen zuen, eta «España berriaren asmoak eta jokamoldeak» Alemania eta Italiaren parekatuz jo eta gaitzetsi zituen, zuzenki zeharkara. Gerra bere gordintasun osoz azaldu gabea zelarik, 1940eko erdi aldera, idazteari utzi zion. Churchill eta ingeles duintasun eta fermutasunaren aurrean, «berri ere, Jainkoa maite!» dira bere azken hitzak.

Irigarai bilobak dioenez, «abantxu 60 urte iragan direlarik, liburu honen argitaratzea ezohizko zerbait izatez landaratu, Larrekorenganako zorraren ateratzea ere bada; honen argitaratzearekin hartzen baituke aspaldianik merezi duen ikustate eta onespena».

Irigarai bilobak dioenez, «abantxu 60 urte iragan direlarik, liburu honen argitaratzea ezohizko zerbait izatez landaratu, Larrekorenganako zorraren ateratzea ere bada; honen argitaratzearekin hartzen baituke aspaldianik merezi duen ikustate eta onespena».



Iruñeko Huarte ikastetxeko ikasleak. Larreko eta Pio Baroja tartean.

## Gaitzaren kronista

A. B. / IRUNEA

Ezagunak ziren Larrekoren lan idatzi zenbait, han-hemenka argitaratutakoak, baina eskuizkribu hauek idazle eta sendagilearen izakera eta nortasunari buruz ezinbestekoak izango dira aurrerantzean. Nafarroako gerrari buruz kontakizun paregabea, orduko une latz eta bortitzen zuzeneko kontakizuna: «Eta euskara zer? Ai, ei, ei eta miletan ai! Oraiko aldia, Nafarroan be-niipein, euskararenak egiten ez badu, euskaldungoarenak bai; ori ezabaturik geldituko da. Eta baldin mendiz beste aldetik ez bazuigu xertoa eldu, gureak egin du».

'Euskalduna' aldizkarian ateratako lan asko jasota daude Klazikoa sailean Larrekori buruz ateratu zuten liburuan, Iñaki Caminok prestatuta. Bertan idazle auriztarraren idazkera eta lanari

buruz hainbat zehaztapen jaso dira. Larrekok 'Napartarra' eta 'Euskalduna' astekarietan argitaratu zituen bere lan gehienak, baina baita 'Argia', 'Euskal Es-nalea', 'Euzkadi', 'Euzko-Deya', 'Gure Herria' eta 'Herria-n' ere. 'La Voz de Navarra' eta 'Zeruko Argia' aldizkarietan ere idatzi zuen. Erdaraz ere argitaratu zituen zenbait artikulua, Iruñeko 'La AValancha-n' edo 'El Eco de Navarra-n' eta medikuntzari lotutako gaiak jorratu zituen hiru li-niipein, euskararenak egiten ez badu, euskaldungoarenak bai; ori ezabaturik geldituko da. Eta baldin mendiz beste aldetik ez bazuigu xertoa eldu, gureak egin du».




Larreko —bigarrena eskuinetik— eta beste zenbait mediku, Iruñeko Ospitaleko kirofanoan.

izenpetu gabekoak izan. Idazkera bizia du, eta orduan ageria zen garbizaletasunatik urrun. Caminok dioenez, «ez dira bertan garaiko beste idazle askok erabiltzen zuten adina hitzberri ageri, eta haren moldea herritarraren, baina Larreko euskal irakurle porrokatua zen, eta ez zegoen garaiko literatur mundutik landa; herriarentzat idaztea maite bazuen ere, bazen hitzberri haren artikuluetan, EAJren inguruko 'Napartarra-n' edo abertzaleen inguruko 'Euzko Deya-ko' artikuluetan, esate baterako, ez hain bakan; 'Euskalduna-n' berriz, gutiago». Halaber, Larrekok berak ez du garbizaletasuna lexikoaren baitan ezartzen, bere testu batean azaltzen duenez. «Leenik euskararen garbitasuna eztago itzetan bakarrik, baizik eta euskera erabiltzeko eran, euskeraren joskeran; osakeren borobiltzean, aditzaren bereixetan eta behar den eran ematen».

**IPARRALDEKO GOI-NAFARRERAZ** Caminori jarraiki, Iparraldeko goi-nafarrerak da nagusi bere idazkeran, nahiz eta Aurizko hizkera He-goaldeko goi-nafarrerari dago-kion. Irurita eta Baztango euskaratik ere bazuen Larrekok eragina. 'Euskalduna-tik' erruz edan zuen, eta bestelako idazle klasi-koak —Axular, Haraneder— oso maite zituen. Baionako astekari-arian Hiriart Urruti, Abbadie eta Adema idazleen idazkera gogo-koa zuela zioen.

Maneazundirekin batera orduko Nafarroako idazle ezagunenak, nahiz eta maila literario izugarria ez izan, funtsezko garai haietako kronistak ditugu biak. Larrekok dioenez, hori baita, azken finean, bere helburua.

## Gazteendako Zokoa



Nafarroako Taldekako Xake Txapelketaren 9. jardunaldiko partida, 1993ko abenduaren 27an jokatu.

Unai Garbisu, 2.300 ELOkoa (Orvina 'A')-Jesus De la Villa, 2.475 ELOkoa (Oberena 'A').

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ab5,f5; 4.d3,e4; 5.e4,Zf6; 6.0-0,d6; 7.-Dd3,Ag4; 8.fZ-d2, Ae7; 9.Zc3,-a6; 10.Ac6 xa,c6; 11.Zc4,0-0; 12.Za5,c5; 13.a3,De8; 14.b4,b4; 15.b4,Ae6; 16.Ag5,Zh5; 17.A-d2,Zf6; 18.f3,Eh8; 19.Ag5,D-h5; 20.Af6,Gf6; 21.Gf2,Gh6; 22.g3,Df7; 23.Zd5,Ag5; 24.-Eh1,Ad5.

Zaldiak ongi kokatuta zeuden. Baina aldaketa honekin joko gehiago lortzen dute txuriek, hainbete peoiekin zaldia alfila baino balioitsuago delako.

25.Dd5,Dd5; 26.d5,Ae3; 27.-Ge2,Ad4; 28.Ga3,Gf6; 29.Zc6,-Ab6; 30.Eg2,aG-f8; 31.c4,g5; 32.Gc2. Alfila harrapatuta dago. Ondorioz, beltzek peoi bat galduko dute. Ikus koadroa. 32....Ad4; 33.Zd4,d4; 34.Gd2,Gb8; 35.G-b3,Ge8; 36.Ef2,Gh6; 37.Eg2,-Ge1; 38.bG-b2,Gf6; 39.Gd4,-Ge3; 40.Gf2,Eg7; 41.Gg4,h6. Ez da egokia, Bigarren peoia irabaziko dute txuriek.

42.h4,Eg6; 43.f4,Eh5; 44.h-g5, Eg4; 45.f6, Ge8; 46.Ga2,Gf8; 47.Ga6,Gf6; 48.Ga7. Partida erabakita dago. Txuriek estrategia hobea moldatu dute. 48....Gf7; 49.b5,Ge7; 50.Ef2. Beltzek ez zuten 'b6' jokaldiari erantzuteko modurik. Beraz, porrota onartu zuten.

## IKERNE INDAKOETXEA

Ohi denez etxeranzko bidea betiko moduan segitzen dut, zuhaitzak bere lekuetan, betiko jendea... hitz batean esanda, monotonia. Etxeko kalera iritsi eta poltsikoan giltzik ez, kaka, motxila kendu eta ireki behar. Lau beira eta lau egur dituen sarrerara iritsi eta jarri berria dagoen zerrailan giltza sartu dut. Sarrerako eskailerak igo eta ia hondaturik dagoen buzoian begiratu dut, gaur ere hainbese itxarondako eskutitza ez da iritsi.

'Dalmata' txakur bat diruditen eskailerak —dituzten pinta beltzekin—, igotzen hasi naiz. Egunero lehendabiziko pisuan usain desberdinak senti daitezke, eta usain diferente egote horrek nere bost zentzuetako bat, usaimenarena, asko garatu dit, esperientziarik gabeko batek ez luke jakingo gaur sukaldaria porruak txorizorekin prestatzen dagoenik. Afizionatu bat besterik ez da, baina...

—Badakizu pareko etxeko neska norekin dabilen?»

—Ez, ez».

—Ba, Julitaren semearekin. Harrigarria baietz? Eta...»

...eta horrelako beste zenbait

hizketaldi edukitzen duzen emakume zahar bi daude.

Bigarren pisurantz igotzen jarraitzen dut. Bihotz arrosadun kaltzontziloa ikusi bezain pronto bere jabea imajinatzen dut. Pentsio honetatik pasatzen den jendea nolako izan daitekeen imajinatzen saiatzen naiz. Baina irekita daraman urteetan ez dut inoiz nire gustokorik aurkitu; neska izatekotan, ile beltz kixkurduna eta bizitzari aurpegia ematen diotenak nahiago ditut eta mutila bada ilehoria edo beltzarana, begi urdin eta marroldunak, eta neska bezala bizitzari aurpegia ematen diotenak. Ez da oso zaila, ez, horrelako asko badaude, baina ez dakit beste pentsioren batetara joanen diren, ze, behintzat hemengora ez.

Eskailerak igo eta igo hirugarren pisura iristen naiz, baina zer da zarata hau? Sevillana ikastetxe bat, amets gaiztoenetan ere gerta ezin daitekeena. Taka, taka, tatatakakaka... ai, aihaih, aiiiiih, ole, aiiiiih!... Duda-mudatan jartzen dut hau baino gauza okerragorik dagoenik. Eskerrak ez dela jende askorik etortzen bestela...! Inork ez luke iraungo bertan. Bigarren pisuko ikastetxearen az-

pian auzokideez errukitzen naiz.

Zarata ahazteko gogoz eskailerak igotzen jarraitzen dut. Azkenik nire pisura iritsi naiz, nire pisu maitera. Laugarren bizi naiz, ez dago zarata handirik, noizbehinka ondokoaren txakurak zaunka egiten du baina ez da beste munduko gauza. Salbuespenak salbuespen. Azkeneko eskailera zapaldu orduko landare batekin aurrez-aurre topa zaitzke, landare handi batekin. Bere hostoak esku bat bezalakoak dira, baina, noski, berdeak; enborra zuhaixka batena bezalakoak da.

Pisu hau azkenekoa dela jainkoari eskertu beharko diot, behintzat, horrela ez dut goian gogaitzen nauen auzokide petralik. Ni kexatu kexatzen naiz, baina onartu beharra daukat behar bada batzutan musikaren bolumentarekin pasatzen naizela... baina tira, bizi behin bakarrik egiten da.

Etxeko atea, makala eta ahula, ireki dut. Bizkarrean daramadan motxila eta eskuan daramadan karpeta ohe gainean erortzen utzi ditut. Azkenean institutotik etxeranzko monotonia hautsi egin da, monotonia baina era berean atsegina.



## Ori eta Larun

Ori, Kantauri itsasotik hasita, bi mila metro baino gehiago hartzen duen Bortuetako aurreneko tontorra da. 2018 metro, hain zuzen ere. Zuberoa eta Zaraitzu arteko mugari izugarria. Izena aspaldidanik dokumentatua dago Leireko agiri zaharretan: *in montem que uociferatur Orin* 1072. urtean eta *in monte qui uocatur Ori* 1115-ekoa.

Baina ba al da arazorik Ori izenaren inguruan? Telefono liburuan begiratu azkarra eginez, honako hau ikusiko genuke: *Orhy Asesores, Hotel Orhi, Calle Pico de Ori...* Grafia gehiegi berez sinplea den tokizen baten zat. Nondik heldu zaigu nahas-mendua? Y erabiltzea 'dotorezia' besterik ez da, gusto txarreko dotorezia, ene ustez. H-a, berriz, Zuberoako aspirazioak (Iparralde osoan h-a ahoskatzen dute) liburu frantsesetan utzitako aztarna da. Beraz y-a eta h-a alde batera baztertuko genituzke (Nafarroan h-rik aspaldidanik entzuten ez delako).

Antzekoa da Larun-en kasua. Beratarrek Larun diote, soil-soilik. Lapurdin (bertakoekin ez dut harremanik izan) Larrun esaten omen dute. Azkaingo Hiribarrenen *Euskaldunak* liburuan, h-a barra-barra erabili arren, beti Larrun agertzen da. Dautat, Deslandes eta Rostaing-en hiztegiari *Larhune* eta *Larroune* formak biltzen dira. Ulertzekoa da plano askotako Larrun forma baina ez zenbait plano eta liburutako Parisko modaren arabera jantzita agertzen den *La Rhune* (Iruñeko Media Luna parkean *La Rhune* izeneko etxea ere bada). H-ak behialako aspirazioaren berri ematen digu (gure tokizenaren 1853. urterako galdua, esan bezala), baina beste guzia listoren batek egindako dispartea da. Etimologia garbirik izan ez arren Orpustanek Larraun dela defendatzen du: *Lar* 'sasi' eta *un* 'gune'. Baina orduan Beran ere Larrun beharko genuke eta ez Larun. Gogora dezagun iparraldeko rh taldea hegoaldeko r-ri dagokiola normalean: *erho ero erhi eri, Orhi Ori...* (hala ere *rh-rr* aldaeraren bat ere bada *berho berro*).

Larun eta Ori dira, gainera, Nafarroako Gobernuak onartutako izenak eta beraz horiek erabiltzea komeni da. Larrun eta Orhi lapurtar eta xuberotarren ahoskerak dira. Beste kontu bat da zein aukeratu beharko genukeen plano nazional edo 'internazional' batean.

MIKEL BELASKO



## Jenero Xumekoak

## Klauns Kinskik Aranoko neskari

Errekastoaren marmarrean orbela itsasora doa. Nire kuitak, Aranoko neska, nire kuitak nora doaz?

JEREMIAS ERRO

## KAZKARROAN

## KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoan Imotzen bilduriko erranairu zahar bat ageriko zaizu.

1. Kamioa
2. Arraultzeak paratu
3. Ernaia
4. Lehia ariketa fisikoa
5. Lilia

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A										
B										
D										

## Bizi Bizian

**B**etizuen Lagunen Elkartea osatu berri da Nafarroan, desagertzean dagoen behi arraza honen aldeko lana egiteko. Egun 200 buru eskas direla, Europan gelditzen den azken behi basatia da betizua, eta mendetan gurekin egon arren ezezaguna da oraindik.

# Betizuak, azken basatiak

PATXI ULAIAR / IRUÑA

Europako Batasuneko Batzordeak desagertzeko arriskuan dauden abereei buruz iazko urrian egin zuen txosten baten arabera, betizu arraza da 'basati' sailen barruan dagoen bakarra. Hau da, Bidasoa, Malerreka eta Basaburua azken bilgune duten behi hauen kontserbazioak «berbiziko garrantzia» dauka, nahiz eta orain arte inolako begirune berezirik jaso ez izan.

Betizuen eratorria azaltzeko bi teoriak daude. Batzuen arabera, arraza hau izango zen Pirinioetako hasierako arraza, eta bere ondorengoa izango zen Pirinioetako arraza, gaur egun nagusia inguruan. Gelditzen diren buruak, beraz, antzinakoen azken hondarrak izango ziren, hobekuntzarik gabekoak. Beste teoriak azaltzen duenez, betizuak Pirinioetako arrazatik etorriko ziren, eta mendiratzean zaildu eta basatuko ziren. Jose Miguel Ameztoi Betizu Elkarteko partaidearen ustetan, lehendabiziko teoria da zuzenena, hainbat arrazoiengatik. «Desberdintasun handiak dira bi arrazen artean, eta betizuek, kasu, askoz ere gartuagoak dituzte aurreko aldeak, eta ar eta emearen artean desberdintasun handia dago. Antzinako

arraza guztiek zituzten ezugarriak, hain zuzen ere. Halaber, ilea dute gorputz osoan, baita errapean ere, eta horrek garbi adierazten du beren jatorri basatia».

Nolanahi ere, ezjakintasun handia dago oraindik arraza honen inguruan, inoiz ez baita azterketa zehatzik egin, eta hori dute helburuetako bat elkartekoek. Ameztoiren ustetan, abere hauen portaerak eta erreakzioak ezaizte interes handikoa izango litzateke, animalien jarrerari buruz datu interesgarriak eskainiko litzatekeelakoan, baina helburu nagusia dute iraupena ziurtatzea. Egun ez dakigu kopuru zehatza zein den, baina 200 inguru izan litezke. Europako Batzordearen txostenaren arabera, 250. Iraupena ziurtatuta, kode genetiko zehatz bat eskuratuko litzateke eta garatuagoak dauden beste arrazek ez dituzten ezaugarri batzuk ere gehitu ahal izango lirateke. «Arraza gehiago izatea onuragarria da beti. Gainera, betizuak, ongi jasaten dituzte baldintzarik latzenak, eta hori ezaugarri ona da berez».

**DIPUTAZIOAK AKABATUTA ZARIKIEGIN** Etorkizuna, baina, ez da oso ona. Basaburua eta Bidasoa inguruan daude buru



Betizu taldea, joan den abenduan, Zarikietan.

A. SENOSIAIN

gehienak, baina duela hogeita bost bat urte Agoitzera eramandako behi talde baten egoerak kezkatzen du bereziki elkartea. ANAN ekologista taldeak hara eramanda, lehendabiziko urteetan emaitza onak lortu ziren, zainketa ongi bideratuta izan baitzen. Ondoren taldea desagertu egin zen eta betizuak inolako zainketa gabe gelditu. Zarikietako mendietan ugaltu eta zabaldu ziren, baina duela bi urte zenbait kalte sortu zuten inguruko lursailetan, eta lehendabiziko protestak eragin. Nafarroako Diputazioko Abeltzaintza Sailak abereak jaso eta beste toki batera eramatea erabaki zuen, baina ez zituzten biltzerik izan, hain zuden basatuak, eta azkenean akabatzea deliberatu zuten. Oraindik zehaztuta ez bada ere, Diputazioaren isiltasuna dela medio, zenbait buru akabatu, akabatu egin duela ziurtatzen dute elkartean.

Orduan sortu zen elkartea eratzeko asmoa. «Azterketa bat egi-

tea gomendatu genien Diputazioako teknikariei, arraza arriskuan egon zitekeelako, baina ez ziguten jaramonik egin, eta orain arriskua benetakoa da, Europako Batzordeak berak azpimarratu duenez». Zarikietan 60-80 inguru izan daitezke, eta Olagueko azienda batean beste 15 bat dauka abeltzain batek. Hala ere, gehienak oraindik Goizueta eta Leitza aldean daude. Ameztoik azaldu

duenez, helburua arraza gordeztea izango litzateke, eta ez beste askorekin egin den hobekuntza genetiko bultzatzea, produkzio bila. «Horrek ez luke zentzurik, betizuen benetako interesa beren izakera basatian datza eta, Europan dagoen bakarra. Halaber, desagertzeko arriskuan egoteagatik Europako Batasunak ematen dituen dirulaguntzak bideratzeko asmoa daukate elkartean.

## Produkzioaren diktadura

P.U. / IRUÑA

■ Azken urteotan milaka abere mota hil dira mundu osoan, produkzioak ezarritako diktadurak itota. Mende honetan bereziki, ekoizpena izan da arraza baten balioa neurtzeko erabili den baliabide ia bakarra, eta horrek gehien desagerpena ekarri du. Balore ekologiko eta genetiko izugarri baten galera, alegia, aniztasunak berez dituen hainbat balore bazterrean utzita.

Arraza gutxitze honek, baina, ez du ekologisten arreta sobera erakarri. Animalia basatiekin murgilduta, abereen egoerak ez ditu ia inoiz taldeen protestak eragin eta egun ugatzari edo Pirinioetako ahuntzari buruz ikerketak eta mintegi osoak egiten diren bitartean, betizu arrazak Baztango eta Gasteizko txerriek edo Euskal Herriko hainbat oihanda motak hartu zuten bide berbera egin dezake: desagertu.

Euskal Herrian, Europako Batzordeak egindako txostenaren arabera, bi abere arraza dira desagertu hurren: betizuak batetik, eta bestetik Kantabrian eta Bizkaian bizi den terrena izenekoa. Txosten honen arabera, 250 betizu buru bide dira egun bizirik, horietariko 25 arrak. Terrenari dagokionez, 220 buru zehaztu

ditu txostenak, eta soilik lau zuzen. Hondarreko buruak, hain zuzen ere.

Bertan azaltzen denez, abere arraza hauek funtsezkoak dira, hainbat arrazoiengatik: kalitatezko produktuak eman ditzakete, ekoizpen hutsari hainbeste erreparatu gabe; zonalde atzeratuetan giza jarduerari eusteko oinarri garrantzitsuak dira; eta ingurugiroa babesteko funtsezkoak izan daitezke. 500 burutik beherako kopuruak dituzten behi arrazak sartzen dira sail honetan, eta mila burutik beherako ardi eta ahuntz arrazak. Iraupena ziurtatzeko zenbait neurri —«premiatzeko neurri»— proposatzen dira. Behi arrazandako animalien eta azienden sailkapena egitea; abeltzainei informazio nahikoa ematea; hazi erreserbak lehenbailehen ziurtatzea; posible den heinean, hobekuntza genetikorako programak burutzeko —beti ere aniztasun genetiko neurri handian galdu gabe—; eta arrazen ikerketa bultzatzea, informazioa zabaltzeko. Ardi eta ahuntz arrazek arazo handiagoak sortzen dituzte. Lehendabizi animalia eta azienden sailkapena egin behar da, baina malgutasunez jokatu behar azpimarratzen du txostenak, Europako hegoaldean bereziki oso zaila baita horrelakorik.



Ilea dute gorputz osoan, eta aurreko aldeak franko handiagoak.

A.S.

# Roberto Lezaun

Txirrindularia

**R**oberto Lezaun Nafarroako Mendiko Txirrindularitzako txapeldun berria da. Txapela joan den igandean lortu zuen Lizarran, eta zailtasun handie-

girik gabe lortu zuela esan daiteke. Izan ere, Lezaun txirrindulari profesionala da, eta egun kasik oportetan bada ere, Baneston aritu da azken hiru urteotan, ez alferrik.

## «Irabaztea ez da erraza»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Hogeita sei urteko zuruquaindarrak urte franko daramatza hortzak estutzen eta pedalei gogor eragiten. Gaztea zelarik tropelaren lehen postuetan kokatzen hasi zen, eta afizionatueta bere lehen garaipen garrantzitsuak lortzen hasi zen. Hendaia-Hernani klasika, Oteitzako Lasterketa, Euskaldun Tapelketako hainbat froga eta Nafarroako Bira irabazi zituen. Lorpen horietan oinarriturik, duela hiru urte profesionala pasatu zen Banesto taldearen eskutik. Lehen urratsak arrakastatsuak izan ziren oso, hasi bezain laster Ruta del Sol irabazi baitzuen, baina harrezkero nekeza suertatu zaio tropel profesionalaren erritmoari eustea. Banestotik kanporatu zuten joan den denboraldiaren amaieran, eta kostata postu bat lortu du Lotus-Festinan. Dena dela, tropel profesional horretatik kanpo eta mendiko bizikleta baten gainean, Nafarroan behintzat, ez dauka parekorik.

**EGUNKARIA.**— Komunikabideek joan den igandean nagusitasun osoz irabazi zenuela azaldu dute. Ados al zaude?

**ROBERTO LEZAUN.**— Irabazi eta gero oso erraza da hori esatea, baina egia esateko zorte handia eduki nuen lasterketaren azken metroetan. Irabaztea ez da batere erraza. Juan Carlos Esteban nire alboan ibili zen hasiera-hasieratik, eta indartsu zebilela iruditu zitzaidan. Amaierarako bira bakarra falta zelarik bizikletak huts egin zion, eta atzean geratu zen. Hori dela eta, oraindik errazagoa izan zen garaipena lortzea.

**EGUNKARIA.**— Nafarroan mendiko txirrindularitzaren aitzindarietako bat izan zara. Batetik lehenetarikoa izan zinen mendiko bizikleta bat erosten, eta bes-

tetik, lehenetarikoa izan zara lasterketak antolatzen.

**LEZAUN.**— Bai. Mendia betidanik gustatu zait, eta izugarria da alboan autorik ez duzula bizikletan ibiltzea. Hori dela eta, berehala hasi nintzen honetan. Zuruquain nire herrian peña bat egin zidaten —beno, ez da peña ofiziala paperak egin ez dituztelako, baina antzeko zerbait da—, eta haiei lasterketa bat antolatzea proposatu nien. Ongi atera zen, eta jada bi lasterketa antolatu ditugu, azken bi urteotan.

**EGUNKARIA.**— Zure lagun talde horrek ez bezala, Nafarroako Txirrindularitza Federazioak ez du orain arte lasterketarik antolatu, eta mendiko txirrindularitzan lanik egin ez duela esan daiteke. Zer dela eta gertatu da hori?

**LEZAUN.**— Ez dakit zergatik ez duten horretan lanik egin. Agian ez zuten horren indartsua izanen zenik antzeman. Egun jende asko ari da mendiko txirrindularitzan, eta lasterketak noiz, non eta nola egiten diren kontrolatu beharko dute. Badirudi orain lan egiteko prest daudela, eta guztion artean anabasa konpondu dezakegu. Garrantzitsua litzateke, esaterako, mendiko txirrindularitzan aritzen direnak federatzen hastea, asko eta asko konturatzen ez badira ere, aseguruia edukitzea edonorentzat premia larria baita.

**EGUNKARIA.**— Igandean bezala, beste askotan zailtasun handiegirik gabe garaipena lortu duzu mendiko txirrindularitza froga batean. Jaso al duzu inoiz honetan profesional gisa aritzeko eskaintzarik?

**LEZAUN.**— Bai. Errepidean denboraldia amaitu nuelarik Banestok taldetik landa utzi nindueanean gonbitea luzatu zidaten. Onartzekotan egon nintzen. Haatik, Lotus-Festinak eskaintza



JOXE LACALLE

ona egin zidan, eta dudarik gabe onartu nuen. Urte anitz eman ditut errepidean eta profesional gisa segitzeko aukera ezin nuen alferrik galtzen utzi.

**EGUNKARIA.**— Xabier Lazpiur eta Santi Cresporekin batera afizionatueta nagusi izan zinen. Orduan errepidean mendian bezain ona izanen zinela zirudien, baina oster, uste baino gehiago kostatu zaizu profesional tropellean toki bat eskuratzea. Zer gertatu da?

**LEZAUN.**— Salto handia da, eta ez da batere erraza. Euskal He-

rrian puntaren-puntan aritzen ginen, zuk diozun lez nagusi ez baginen ere. Kontuan hartu beharra dago, gainera, estatuari dagokionez hemen maila gorena daukagula. Hasieran zorte handia eduki nuen eta Andaluziako bira irabazi nuen, baina gero uste baino gehiago kostatu zait hor jarraitzea.

**EGUNKARIA.**— Nola eta zein baldintzetan atera zinen Banestotik?

**LEZAUN.**— Egia esateko, beranduegi esan ziguten taldean ez genuela segituko. Abuztuan Ba-

neston tokia bagenuela azaldu baziguten ere, Errioxako biraren amaieran, irailaren amaieran alegia, kanpoan geundela esan ziguten. Egungo txirrindularitza taldeak laster osatzen dira, eta ordurako gehienak egindak zeuden.

**EGUNKARIA.**— Dirudienez kanporatzea Banesto eta Amaieran arteko batasunaren ondorioa izan da, eta orain jakin denez, uztailen erabaki zen batasuna. Kanporaketa horrenbeste atzeratzea ez dirudi zilegizkoa.

**LEZAUN.**— Jendeak erabakia uztailen hartu zela dio, eta gauza jakina zela gaineratzen du. Komunikabideetan atera zen arte, ordea, inork ez zuen deus ere esan, gero askok bazekitela esan badute ere. Dena dela, nik ez nekien ezer. Egia esateko, Banestokoek duela denbora franko bazekitela esanen nuke nik.

**EGUNKARIA.**— Euskadi taldearen eskaintza jaso zenuen, zer dela eta egin zenion uko?

**LEZAUN.**— Nik dakidanez, Madariagak —Euskadi taldean kontratazio gehienak egin dituenak— abuztuan Eusebio Unzuerekin hitz egin zuten, eta Eusebiok Ruben Gorospek eta biok taldean jarraituko genuela esan zion. Horren ondorioz, Madariaga normalean bere taldea osatzeko beste gizon batzuk fitxatu zituen. Kanpoan geundela esan zigutenean, berriro ere eskaintza egin ziguten, baina, egia esateko, ez zen eskaintza batere ona izan. Niri azken momentuan Lotus-Festinak beste ate bat ireki zidan. Etxeko taldean aritzea nahiago nuen, baina askoz hobea zen, soseki zein kirol egutegiari dagokionez, kanpoko eskaintza. Euskadi taldea ez da Espainiatik aterako, eta Lotus berriz, Espainia, Frantzia eta beste zenbait lekutan ariko da.

## NIKIJATOR

© Zaldi Eroak

